

TELEFONOA edo SEKRETUA

HAUR TALDEA : Talde osoa edo heldu bakoitzak talde bat hartzen du

TOKIA : aterpean edo toki zabal batean.

HELBURUA : hitz bat entzun eta errepikatu ahopean

AURKEZPENA

- Haurrek ingurutxo bat osatzen dute.
- “Bira bira orratza” kantuarekin haur bat hautatzen dugu eta hitz bat hautatzen du bere baitan.
- Bere ondokoari hitza erraten dio belarrian.
- Bigarren haurrak ez badu entzun edo ulertu erraten dio “ez dut entzun” edo “ez dut ulertu edo “zer erran duzu?”.
- Hitza entzun eta haurrak errepikatzen du bere ondokoari eta hala ingurutxo osoa osatu arte.
- Azken haurrak hitza ozenki erraten du eta beste haurrek erran behar dute ber hitza baldin bada. “nikentzun dut” erraten dute.
- Hastapeneko haurrak erraten du bere hitza “nik erran dut”.

.Hastapenean erakasleak hautatzen du hitza araua ongi ulertu arte. Hiztegi ezaguna erabiltzen du hastapenean eta polliki polliki proposatzen ahal du lantzen duten hiztegia jokoa aberasteko.

ONDORIOAK :

- jokoa berriz egin talde ttipiagorekin.
- eguneroko bizian nork deklinabidea erabili nik edo zuk formarekin.
- klaseko bizian galdera “zer erran duzu” berriz erabili haurren artean edo erakaslearekin.